



AGINDUA, SAILBURUARENA, KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAREN 2017. URTEKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUENA

Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8. artikuluko 1. zenbakiak ondokoa jasotzen du: *“Herri Administrazioetako organoek edo diru-laguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, aldez aurretik, Diru-laguntzen Plan Estrategiko batean zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio-iturriak. Nolanahi ere, Plana burutzeko ezinbestekoa izango da aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzea.”*

Xedapen hori betetzeko 2017. urteko Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoa egin da. Horretarako, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak Diru-laguntzen Plan Estrategikoa egiteari buruz eman zuen irailaren 18an 01/15 zenbakidun Zirkularrak ezarritakoa jarraitu da; eta, halaber, kontuan eduki da Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak izango duen egitura berria, azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren arabera antolatutakoa, dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen ditu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen ditu, eta, era berean, apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren arabera, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.

2017. urteko Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoa orokorrean eta osotasunean ematen da, Administrazio Orokorraren, hau da, Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailaren eta berari atxikitako sektore publikoaren jardura guztiarena baita, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren tresna izango da, diru-laguntzen bidez, gizartearen intereserako edo gizarteak erabiltzeko den jardura bat sustatzea edo helburu publikoren bat lortzea jomuga duten jardunarloetan.

Beraz, araudiak esleitzen dizkidaten eskumenez baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Onartzea Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren 2017. urteko Diru-Laguntzen Plan Estrategikoa, eranskin gisa gehitzen dena.

Bigarrena.- Agintzea Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren euskadi.eus webgunean argitaratzeko.

Vitoria-Gasteizen,

Bingen Zupiria Gorostidi
Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua



Nahi izanez gero, J0D0Z-T0X4M-TNVM bilagailua erabilia, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T0X4M-TNVM en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**

ERANSKINA



DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA



DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

2017. URTEA

1. SARRERA

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak (aurrerantzean, DLO) zioen azalpenean, oro har, eta zehazki 8. artikuluan, xedatzen du herri-administrazioek Diru-laguntzei buruzko Plan Estrategikoa (aurrerantzean, DLPE) egin behar dutela. Bertan zehaztuko dituzte berau aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, baita horiek lortzeko epea, aurreikusten diren kostuak eta finantzazio-iturriak ere. Hala, publizitate, gardentasun, lehia, objektibotasun, berdintasun eta bazterkeriarik ezaren printzipioak bermatuko dituzte. Baita baliabide publikoen helburuak eraginkorrak izatea eta eraginkortasunez esleitzea eta erabiltzea ere.

Era berean, DLOko 8. artikulua, DLOren Araubidean garatutakoa eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa oinarritzakoa da, eta DLOren azken xedapenetatik bigarrenean eta aipaturiko Errege Dekretuaren azken xedapenetatik lehenengoan ezarritakoarekin bat dator, xedapen horietan zerrendatutako aginduak izan ezik.

Estatuko araudi hau Euskal Autonomia Erkidegoko jarduketan eremuan aplikatzean sortzen den eztabaidari dagokionez, honakoa xedatzen du Gobernantza Publikoa eta Autogobernu Saileko Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak duela gutxi eginiko txostenaren gogoeta juridikoetan:

"17. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak (aurrerantzean, EAEJAN), Euskal Autonomia Erkidegoan 38/2003 Legeak duen aplikazioa ukatu gabe, "diru-laguntzen plan estrategikoa" ez zuen ezinbesteko baldintzatzat jotzen 8.1 artikuluan adierazten den bezala EAeko udalerrietan eginiko diru-laguntzen deialdiak baliozkoak izateko...

...Nolanahi ere, Auzitegi Nagusiak (aurrerantzean, AN) EAEJANek emandako epaiekin bat datozen hainbat epaietan (besteak beste, 2012ko ekainaren 26ko eta abenduaren 4ko Auzitegi Nagusiaren epaia eta 2013ko urtarrilaren 28ko eta apirilaren 16koa), irizpide hau ezarri du 38/2003 Legeko 8.1 artikuluekin lotuta: "*Arau honetatik, ahalegin dialektikorik gabe, bi ondorio atera daitezke: Plan Estrategikoa kasuan kasuko edozein diru-laguntza baino lehen ezarriko da; eta araua aginduzkoa eta kategorikoa izango da. Uste dugu Plan Estrategikoa baino lehen exijituko diren manuak ez direla tangentialak eta sistematikoak, instantziako epaian esaten den bezala, diru-laguntza arautu baino lehenagoko oinarritzak baldintzak baizik. Hala, beharrezkoa da kanpotik formalizatzea edo gauzatzea, eta*



formaltasun jakinik behar ez badu ere, berariaz definitu behar da identifikatu ahal izateko." EAEJANek ondoren emandako epaietan aplikatzen du dagoeneko jurisprudentzia hori (besteak beste, EAEJANen 2012ko azaroaren 6ko eta 2014ko otsailaren 18ko, urriaren 29ko eta abenduaren 19ko epaietan). Baina kasu honetan Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eginiko diru-laguntzen deialdiak direnez, EAEHONATBko 48 artikulua eta ondorengoak ez dira aplikazio-eremuan sartuko. Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioko epai horiek esaten dute 38/2003 Legea EAeko tokiko administrazioan aplika daitekeela.

18. EAEJANek, halaber, 38/2003 Legea aplikatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko diru-laguntzen deialdien aurka jarritako errekurtsioak ebazteko (besteak beste, EAEJANen 2009ko irailaren 16ko epaian -2013ko abenduaren 23ko Auzitegi Nagusiaren epaiaren bidez berretsia- eta 2014ko irailaren 16ko eta azaroaren 10eko epaietan); baina, era berean, EAEHONATBko 48. artikuluan eta ondorengoetan jasotako autonomiako araudia ere aplikatzen du, bata edo bestea lehentasunez aplikatzearen inguruko eztabaidagai berezirik sortu gabe. Estatuko abokatuak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2013ko uztailaren 31ko Aginduaren (horren bidez, 2013an goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko diru-laguntzak deitu eta arautu dira) aurka jarritako errekurtsioan azaleratu da eztabaidagaia. 2015eko 21eko EAEJANen jasotzen da gorago adierazitako epaietan JAK ezarritako doktrina (gogora dezagun, EAeko udalerrietan eginiko diru-laguntzen deialdiei buruzkoak), 38/2003 Legeko 8.1 artikulua aginduz aplikatzearekin lotuta, eta, honako hau gaineratzen du: "38/2003 Legeko hogeita bigarren xedapen gehigarriaren edukia ez du eragozten Auzitegi Nagusiak eginiko baieztapenen biribiltasuna... izan ere... arauak ez du Euskal Autonomia Erkidegoa haren aplikazio-eremutik bazter uzten, oso bestela, aplikazio hori berresten baitu. Berau ezartzean, EAeko Autonomia Estatutuko eta lurralde historikoetako antolamendu eta eskumenen esparruko berezitasunei erreparatuko zaie. Kasu honi dagokionez, Sala honek (sic) ez daki Euskal Autonomia Erkidegoko zein alderi eragin dion, zer ez den errespetatu eta noiz agindu den diru-laguntzak ezarri baino lehen plan estrategikoa egitea. Are zailagoa da hori hautematea, kontuan hartuta demandatuak berak onartzen duela 1/1997 Legegintzako Dekretuak, azaroaren 11koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Ogasuna Nagusiaren Antolarauei buruzkoak, estatuko arauetan printzipio erabat parekideak jasotzen dituela". Argudio hori oinarri hartuta, aurkaratutako Agindua baliogabetzat jotzen du, ez datorrelako bat antolamendu juridikoarekin, diru-laguntza onetsi baino lehen ez zegoelako Plan Estrategikorik."

Txostenean ondorioztatzen da, besteak beste, aurreko gogoeta juridikoak aintzat hartuta, erkidego honetan DLO zuzenean aplikatzekoa dela, "*Estatuko oinarrizko araudia (38/2003 Legeko azken xedapenetatik lehenengoan "Estatuko oinarrizko legeria" adierazpena erabiltzen da, hau da, adierazpen hori bera erabiltzen da berariazko eskumenak gauzatzeari dagokionez), diru-laguntzen esparruan, hasiera batean, EAEn zuzenean aplikatzekoa delako. Araudi horretako aginduren bat aplikatu ez izana justifikatzeko, arrazoitu egin beharko da ez dela bateragarria Euskal*



Autonomia Erkidegoko foru-araubidea arautzen duen xedapen bereziren batekin, txosten honen edukian adierazitakoarekin bat etorriz."

Hori guztia dela eta, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Diru-laguntzen Plan Estrategiko hau egin du, DLOn eta Diru-laguntzen Plan Estrategikoa egiteko, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak diktaturiko 2015ko irailaren 18ko 01/2015 Zirkularrean ezarritakoari jarraituko zaio.

Diru-Laguntzen Plan Estrategikoa kudeaketa-tresna bat da, programatikoa, eta ez da arau-mailakoa. Beraz, ez dakar eskubide edo betebeharririk balizko onuradunentzat. Eraginkorra izateko hainbat diru-laguntza lerro jarriko dira martxan, betiere, besteak beste, ekitaldi bakoitzean dagoen aurrekontu-erabilgarritasunari erreparatuta.

Era berean, plana sustatu duen Sailak eginiko jarraipen-txostenen emaitzan eta Ekonomi Kontrolerako Bulegoak igorritako txostenen emaitzetan diru-laguntza lerro batzuk aurreikusitako helburuen lorpen-mailara edota inbertitutako baliabideen mailari dagokion lorpen-mailara iristen ez badira, aldatu eta horien ordean eraginkorragoak izango diren beste batzuk ezarriko dira, edo, hala badagokio, kendu.

Emakumeen eta Gizonezkoen Berdintasunerako arloan aplikagarria den 4/2015 Legearen, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa, 18. artikuluan zehazten denaren arabera "*Arauk garatu eta aplikatzerakoan, bai eta planak, programak eta politika publikoak, diru-laguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, euskal herri-aginteeek modu aktiboan izango dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzearen helburua.*", era berean, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako, xedatutakoa kontuan izanda, Plan honen helburu nagusietako bat Saileko diru-laguntzen politiken definizioan genero ikuspegia jasotzea da, berdintasun politiken zeharkakotasuna eta, azken finean, politika publikoen eraginkortasuna garatu eta bermatuz.

Diru-laguntza publikoak sustatze-jarduerak dira, eta onura publikoa edo gizarte-interesa izan behar dute xedetzat; beraz, logikoa da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna izatea diru-laguntzak ematearen bidez lortu nahi den helburu publikoetako bat.

Ondorioz, *emakumeek eta gizonek kolektibo modura hartuta bizi duten egoeran neurriok izan dezaketen eragin negatiboa ahalik eta gehien neutralizatzeko, antzemandako ezberdintasunak gutxitu edo ezabatzeke eta sexu-berdintasuna sustatzeko* (4/2005 Legearen 20. Artikulua) diru-laguntzen deialdiak egiterako orduan, hurrengo ataletako bat edo batzuetan berdintasun-klausulak jasoko dira:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa urratuz edo diskriminazioz jarduten duten pertsona fisiko edo juridikoak diru-laguntzetatik kanpo uztea, edo haiei aurkezteko debekua ezartzea.
- Onuradun izateko baldintzak.
- Tramitazio- edo ebaluazio-organoaren izaera.
- Balorazio-irizpideak.



- Diru-laguntza emateko den arrazoi jardueran betebeharrak ezartzea.

2. ESPARRU SUBJEKTI BOA ETA DENBORAZKOA

Diru-Laguntzen Plan Estrategiko honen baitan daude Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak kudeatzen dituen diru-laguntzak, eta dekretu honetan jasotako eskumenekin bat datoz: 24/2016 Dekretua, azaroaren 26koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dagozkio hurrengo egitekoak eta jardun-arloak:

- a) Hizkuntza-politika.
- b) Euskara sustatzea.
- c) Ondare historiko-artistikoa kudeatu eta babestea; museoak, liburutegiak eta artxibategiak.
- d) Arte- eta kultura-jarduerak eta horien zabalkundea.
- e) Kirolak.
- f) Komunikabide sozialak; irratien emakida eta frekuentzien esleipena.
- g) Sailari atxikita dauden erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta sozietate publikoak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.

Diru-laguntzen Plan Estrategiko honetan sartuta daude Kultur eta Hizkuntza Politika Saileko diru-laguntzak, baita Saileko Erakunde Autonomo eta Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoenak ere, 2017. urterako. Hain zuzen ere, HABEren (Erakunde Autonomoa), ETXEPAREren (Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa) eta Basque Team Fundazioaren deialdiak sartu dira. Bestalde, ez dira sartu Planean ez EiTb (Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa), ez Euskadiko Orkestra SA (sozietate publikoa) ezta Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa (Fundazioa) ere, ez baitute diru-laguntza deialdirik.

3. HELBURU OROKORRAK

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza lerroak ondorengo jardueretan egituratzen dira: Kultura, Hizkuntza Politika eta Jarduera Fisikoa eta Kirola.

Diru-Laguntzen Plan Estrategiko honen bidez, helburu orokor hauek lortu nahi dira:

Kultura:

1. Kultura ondarea babestea, ikertzea, sustatzea eta zabaltzea.
2. Euskadiko Museoen Sistema garatzea.
3. Artxiboen Euskal Sistema garatzea.
4. Liburutegien Euskal sistema garatzea.
5. Euskal sorkuntza sarea sendotzea eta kultura industrial bultzatzea.
6. Kultura-politikak eta estrategiak batzea.



7. Kulturaren esparruan aukera-berdintasuna sustatzea.
8. Euskara eta Euskal Kultura Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo sustatzea, hedatzea eta proiektatzea.

Hizkuntza Politika:

1. Euskararen erabilera areagotzea Herri Administrazioetan.
2. Gizarte-bizitzan euskara sustatu, garatu edota normalizatu.
3. Euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatu.
4. Gizarte bizitzan oro har, eta bereziki IKTetan eta hedabideetan, euskaren presentzia areagotu eta sendotzea.
5. Informazioaren eta komunikazioaren teknologietan euskara sustatu, garatu edota normalizatu.
6. Euskararen erabilera sustatzea alor sozioekonomikoan.
7. Helduen euskalduntzea bultzatu.

Jarduera Fisiko eta Kirola:

1. Euskadiko kirol-federazioak finantzatzea urteko programa gauzatzeko.
2. Goi-mailako kirola eta kanpora begirako proiektzioa sendotu, bai kirol lehiaketan antolaketan, baita parte-hartzean ere.
3. Goi-mailako kirolari eta teknikarien txapelketen emaitzak eta errendimendua hobetzeko diru-laguntzak.



4. ARDATZ ESTRATEGI KOAK ETA DIRU-LAGUNTZEN I LDOAK

Ondorengo taulan, Diru-laguntzen Plan Estrategikoa egiteko jarraitu den egitura adierazten da:

2017ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa - KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA					
Eransk. Anexo	FI TXA/ FI CHA	EDUKI A/ CONTENI DO		Fitxa kop. Nº Fichas	Orri kop. Nº hojas
I	Kultura eta Hizkuntza Politikako Saila <i>Departamento de Cultura y Política Lingüística</i>	Egitura organikoa	<i>Estructura orgánica</i>	1	1
II	Sailburuordetza/ Zuzendaritza <i>Viceconsejería/ Dirección</i>	Helburu estrategikoa Diru-laguntza lerroa Kostua (urtealdiak)	<i>Objetivo estratégico Línea de subvención Coste (anualidades)</i>	3	4
III	Diru-laguntza lerroa <i>Línea de subvención</i>	Sailburuordetza Zuzendaritza Denbora-barrutia Helburu estrategikoa Diru-laguntza lerroa Organoa Programa Helburuak, ekintzak eta adierazleak Aurrekontu-konpromisoak Zein sektoreri dagoen zuzenduta	<i>Viceconsejería Dirección Ámbito temporal Objetivo estratégico Línea de subvención Órgano Programa Objetivos, acciones e indicadores Compromisos presupuest. Sector al que se dirige</i>	52	52



4.1 Anexo I

2017ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa – KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA		
Egitura Organikoa/Estructura orgánica	Deialdiak	Convocatorias
	2017	
KABINETEKO ETA GIZARTE HEDABIDEEN ZUZENDARITZA DIRECCIÓN DE GABINETE Y MEDIOS DE COMUNICACIÓN SOCIAL		
ZERBITZU ZUZENDARITZA DIRECCIÓN DE SERVICIOS		
JARDUERA FISIKOA ETA KIROL ZUZENDARITZA DIRECCIÓN DE ACTIVIDAD FÍSICA Y DEPORTE		
Jarduera Fisikoa eta Kirol Zuzendaritza Dirección de Actividad Física y Deporte	3	4
Basque Team Fundazioa Fundación Basque Team	1	
HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA VICECONSEJERÍA DE POLÍTICA LINGÜÍSTICA		
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza Dirección de Normalización Lingüística de las AA.PP	1	10
Euskara Sustatzeko Zuzendaritza Dirección de Promoción del Euskera	3	
Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza Dirección de Investigación Lingüística y Coordinación	2	
HABE-Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea HABE-Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de Adultos	4	
KULTURA SAILBURUORDETZA VICECONSEJERÍA DE CULTURA		
Kultura Ondarearen Zuzendaritza Dirección de Patrimonio Cultural	9	38
Kultura Sustatzeko Zuzendaritza Dirección de Promoción de la Cultura	21	
ETXEPARE - Euskal Instituta ETXEPARE - Instituto Vasco	8	
GUZTIRA/TOTAL		52



4.2 Anexo II

HIZKUNTZA POLITIKA SAILBURUORDETZA							
ZUZENDARITZA/ AZPIPROGRAMA	HEL BURU ESTRATEGIKOA	DIRU-LAGUNTZA ILDOA EDO LERROA	2017	2018	2019-Gain.	GUZTIRA	
HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZA	47111	Euskararen erabilera areagotzea Herri Administrazioetan	EUSKARA TOKI-ERAKUNDEETAN (17/19) (EBPN/ESEP)	692.750	1.385.500	692.750	2.771.000
EUSKARA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA	47112	Euskara sustatu, garatu eta normalizatu	EUSKARA GIZARTE BIZITZAN (17/18) (Euskalgintza)	636.480	342.720	----	979.200
		Gizarte bizitzan oro har, eta bereziki IKTetan eta hebidetan, euskararen presentzia areagotu eta sendotzea.	EUSKARA HEDABIDEETAN (16/19) (Hedabideak)	4.875.000	4.875.000	1.706.250	14.625.000
			EUSKARA GAZTELANIAZKO HEDABIDEETAN (17/18)	260.000	140.000	----	400.000
HIZKUNTZ IKERKETA ETA KOORDINAZIOA ZUZENDARITZA	47113	IKTetan euskararen sustapena, garapena eta normalizazioa	EUSKARA TEKNOLOGIA BERRIETAN (17/18) (IKT)	524.875	282.625	----	807.500
		Euskararen erabilera sustatzea alor sozioekonomikoan	EUSKARA ENTITATE PRIBATUETAN (17/18) (LanHitz)	1.072.500	577.500	----	1.650.000
HABE-HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREKALDUNTZEKO ERAKUNDEA							
EA/AZPIPROGRAMA	HEL BURU ESTRATEGIKOA	DIRU-LAGUNTZA ILDOA EDO LERROA	2017	2018	2019-Gain.	GUZTIRA	
HABE (ERAKUNDE AUTONOMOA)	47130	Helduen euskalduntzea	UDAL TUTULARITATEKO EUSKALTEGI PUBLIKOAK (17/18)	739.700	10.780.000	----	11.519.700
			EUSKALTEGI PRIBATUAK ETA AUTOIKASKUNTZARAKO ZENTROAK (17/18)	5.760.000	13.820.000	----	19.580.000
			EUSKAL ETXEAK (17/18)	50.000	180.000	----	230.000
			IKASLEAK (17/18)	1.250.000	----	----	1.250.000



KULTURA SAILBURUORDETZA							
ZUZENDARITZA/ AZPIPROGRAMA	HELBURU ESTRATEGIKOA	DIRU-LAGUNTZA ILDO EDO LERROA	2017	2018	2019-Gain.	GUZTIRA	
KULTURA ONDAREAREN ZUZENDARITZA	45141	Kultura ondarea babestea, ikertzea, sustatzea eta zabaltzea.	"KULTURA ONDAREA" SARIA 2017	30.000	----	----	30.000
			KULTURA ONDAREAN IKERKETA (17/18)	80.000	80.000	----	160.000
			KULTURA ONDAREAREN BABESA (17/19)	800.000	800.000	800000	2.400.000
	45142	Euskadiko Museoen Sistema garatzea	MUSEOAK ETA BILDUMAK (17/18)	300.000	300.000	----	600.000
	45143	Artxiboen Euskal Sistema garatzea	ARTXIBO PUBLIKOAK 2017	290.000	----	----	290.000
			ARTXIBO PRIBATUAK 2017	170.000	----	----	170.000
	45144	Liburutegien Euskal Sistema garatzea	IRAKURKETA SUSTATU 2017	258.000	----	----	258.000
LIBURUTEGIKO LIBURU-FUNTSAK 2017			670.000	----	----	670.000	
LIBURUTEGIETAN TEKNOLOGIA BERRIAK 2017			350.000	----	----	350.000	
KULTURA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA	45131	Euskal sorkuntza sarea sendotzea eta kultura industriak bultzatzea	MUSIKA (17/18)	250.000	250.000	----	500.000
	45132		DANTZA (17/18)	225.000	225.000	----	450.000
	45133		DANTZA ZIRKUITUA 2017	140.000	----	----	140.000
			IKUSENTZUNEZKOA (17/20)	500.000	1.025.000	735.000	2.260.000
	45134		PROIEKTUEN GARA PENEA (17/18)	150.000	150000	----	300.000
			ANTZERKI PROFESIONALEN PRESTAKUNTZA 2017	88.000	----	----	88.000
			ANTZOKIETAN EGOITZA PROIEKTUAK 2017	80.000	----	----	80.000
			KALE ANTZERKIA BULTZATUZ 2017	100.000	----	----	100.000
			ANTZERKI-PRODUKZIOA (17/18)	425.000	425.000	----	850.000
			ARTE PLASTIKOAK (17/18)	312.000	104.000	----	416.000
			GURE ARTEA SARIAK 2017	54.000	----	----	54.000
	45136		LITERATURA ARGITALPENAK (17/18)	313.400	313.400	----	626.800
			EUSKADI LITERATURA SARIAK (17/18)	126.000	16.000	----	142.000
	45137		SORKUNTZAKO KULTURGUNEAK (17/19)	280.000	252.000	28.000	560.000
			BITARTEKOTZA ETA BERRIKUNTZA KULTURA ARLOAN (17/18)	250.000	250.000	----	500.000
			KULTURA SORKUNTZA (17/18)	197.000	197.000	----	394.000
			KOMIKIA ETA ELEBERRI GRAFIKOA (17/18)	55.000	55.000	----	110.000
			JAIALDIAK (17/18)	175.000	175.000	----	350.000
			IKUS-ENTZULEAK (17/18)	320.000	320.000	----	640.000
			Kultura eta Sormen Industrietan talentua sustatu	SORMEN TALENTUA (17/18)	100.000	100.000	----
Kultura politikak partekatzea eta estrategiak batzea		ALDERDI POLITIKOEN FUNDAZIOAK 2017	282.500	----	----	282.500	



ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA							
ZPEP/AZPIPROGRAMA	HELBURU ESTRATEGIKOA	DIRU-LAGUNTZA ILDO EDO LERROA	2017	2018	2019-Gain.	GUZTIRA	
ETXEPARE (ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOA)	47137	Euskara eta euskal kultura Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo sustatzea, hedatzea eta proiektatzea.	ARTE PLASTIKO ETA IKUSIZKOAK, MUSIKA ETA DANTZA ZABALTZEA 2017	216.000	----	----	216.000
			ANTZERKI BIRAK ETA ANTZERKI DENBORALDIK 2017	135.000	----	----	135.000
			PROGRA EDO JARDUERA BEREZIEN KANPO ZABALKUNDEA 2017	25.000	----	----	25.000
			LITERATURA-ITZULPENAK 2017	39.000	----	----	39.000
			MERKATU, AZOKA EDO GERTAERA PROFESIONALETAN PARTE HARTZEA 2017	75.000	----	----	75.000
			NAZIOARTEKO MAILAKO ARTE AZOKETAN STANDAK ALOKATZEA 2017	36.000	----	----	36.000
			SORTZAILEAK (BIDAIA POLTSAK) 2017	20.000	----	----	20.000
			IRAKURLEGOA 2017	490.159	----	----	490.159



JARDUERA FISIKOA ETA KIROL ZUZENDARITZA							
ZUZENDARITZA/AZPIPROGR.	HELBURU ESTRATEGIKOA	DIRU-LAGUNTZA ILDOA EDO LERROA	2017	2018	2019-Gain.	GUZTIRA	
JARDUERA FISIKOA ETA KIROL ZUZENDARITZA	45120	Kirol-federazioen finantzatzea (287/2000 Dekretua)	KIROL FEDERAZIOEN PROGRAMAK 2017	2.450.000	----	----	2.450.000
		Goi-mailako kirola eta kanpora begirako proiektzioa	KIROL LEHIAKETETAN PARTE-HARTZEA (17/18)	308.000	130.000	----	438.000
			KIROL LEHIAKETEN ANTOLAKETA (17/18)	92.250	110.000	----	202.250
BASQUE TEAM FUNDAZIOA							
FUNDAZIOA/ AZPIPROGRAMA	HELBURU ESTRATEGIKOA	DIRU-LAGUNTZA ILDOA EDO LERROA	2017	2018	2019-Gain.	GUZTIRA	
BASQUE TEAM FUNDAZIOA	45120	Euskal kirolariak goi mailako txapelketetan eta JJOotetan parte hartzea	GOI MAILAKO KIROLARI ETA TEKNIKARIEN TXAPELKETEN EMAITZAK ETA ERRENDIMENDUA HOBETZEKO DIRU-LAGUNTZAK	720.000	----	----	720.000



4.3 Anexo III

ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZEN ILDOAK
Sailburuordetza: Kultura sailburuordetza
Zuzendaritza: Kultura Ondarearen zuzendaritza
Epea: 2017
Helburu Estrategikoa 1: Kultura ondarea babestea, ikertzea, sustatzea eta zabaltzea.
Diru-laguntza ildo edo lerroa 1: KULTURA ONDAREA SARIA 2017
Organoa: Kultura sailburuordea
Programa: Programa: 4514– Ondare Historiko Artistikoa Azpiprograma: 45141– Arkitektura, Arkeologia eta Monumentuen Ondarea
Helburuak, ekintzak eta adierazleak: 1. Kultura Ondarea babestu, ikertu, sustatu eta zabaltzea. 5. Kultura ondarearen hezkuntza saria. - Emango den sari-kopurua (3)
Aurrekontu-konpromisoak: 4. kapitulua. Guztira 2017: 30.000 €
Zein sektoreri dago zuzenduta: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailetako, Batxilergoko lehenengo mailako eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako lehenengo mailako ikasleak.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZEN ILDOAK**

Sailburuordetza: Kultura sailburuordetza

Zuzendaritza: Kultura Ondarearen zuzendaritza

Epea: 2017-2018

Helburu Estrategikoa 1:

Kultura ondarea babestea, ikertzea, sustatzea eta zabaltzea.

Diru-laguntza ildo edo lerroa 2:

Euskal Kultura Ondarearen babesaren alorrari aplikatutako ikerketa-lanak egiteko diru-laguntzak.

KULTURA ONDAREAN IKERKETA (17/18)

Organoa:

Kultura sailburuordea

Programa:

Programa: 4514- Ondare historiko artistikoa

Azpi-programa: 45141- Arkitektura, Arkeologia eta Monumentuen Ondarea

Helburuak, ekintzak eta adierazleak:

1. Kultura Ondarea babestu, ikertu, sustatu eta zabaltzea.

2. Kultura ondarearen babesaren alorrari aplikatutako ikerketa-lanak egiteko diru-laguntzak (17/18).

- Emango diren gutxieneko diru-laguntza kopurua (10).

Aurrekontu-konpromisoak: 4. kapitulua

Guztira 2017-2018= 160.000 €

2017= 80.000 €

2018= 80.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Pertsona fisikoak, betiere, goi-mailako unibertsitate-titulu hauetakoeren bat dutela egiaztatzen badute: Geografia eta Historian, Historian Lizentziatua edo Graduatua, edo baliokideak.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZEN ILDOAK**

Sailburuordetza: Kultura sailburuordetza

Zuzendaritza: Kultura Ondarearen zuzendaritza

Epea: 2017-2019

Helburu Estrategikoa 1:

Kultura-ondarea babestea, ikertzea, sustatzea eta zabaltzea.

Diru-laguntza ildo edo lerroa 3:

Euskal Kultura Ondarea babestu eta aberasteko diru-laguntzak.

KULTURA ONDAREAREN BABESA (17/19)

Organoa:

Kultura sailburuordea

Programa:

Programa: 4514- Ondare historiko artistikoa

Azpi-programa: 45141- Arkitektura, Arkeologia eta Monumentuen Ondarea

Helburuak, ekintzak eta adierazleak:

1. KULTURA ONDAREA BABESTU, IKERTU, SUSTATU ETA ZABALTZEA

- Emango diren gutxieneko diru-laguntza kopurua (35).

Aurrekontu-konpromisoak: 7. kapitulua

Guztira 2017-2019= 2.400.000 €

2017= 800.000 €

2018= 800.000 €

2019= 800.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Diru-laguntzen programak aipatzen dituzten ekintzak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, publiko edo pribatuak; era berean, toki administrazioko erakundeak edo haien mendeko organoak, baita Birgaitzeko Hirigintza-Sozietateak ere.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZEN ILDOAK**

Sailburuordetza: Kultura sailburuordetza

Zuzendaritza Kultura Ondarearen zuzendaritza

Epea: 2017-2018

Helburu Estrategikoa 2:

Euskadiko Museoen Sistema garatzea.

Diru-laguntza ildo edo lerroa 1:

Museoei eta bildumei zuzendutako diru-laguntzak.

MUSEOAK ETA BILDUMAK (17/18)

Organoa:

Kultura sailburuordea

Programa:

Programa: 4514 – Ondare Historiko Artistikoa

Azpiprograma: 45142 – Museoak

Helburuak, ekintzak eta adierazleak:

EUSKADIKO MUSEOEN SISTEMA GARATZEA

Ekintza: 3. Museo eta bildumei zuzendutako diru-laguntzak.

1. adierazlea.- Bildumaren kudeatzea eta berau ezagutzeko sarbidea hobetzea. Magnitudea: 12.

2. adierazlea.- Erakusketa iraunkorra berritzea eta aldi baterako erakusketak antolatzea. Magnitudea: 13.

3. adierazlea.- Didaktika eta hedapen-jarduerak, museo edo bildumaren izaeraren edo espezialitatearen arabera. Magnitudea: 14.

4. adierazlea.- Museoaren jardun-eremuarekin zerikusia daukan ezagutza sortzea. Magnitudea: 2.

5. adierazlea.- Kudeaketa hobetzea eta berrikuntza sustatzea. Magnitudea: 2.

Aurrekontu-konpromisoak: 4. kapitulua

Guztira 2017-2018= 600.000 €

2017= 300.000 €

2018= 300.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroan inskribatuta dauden museo eta bildumak.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZEN ILDOAK**

Sailburuordetza: Kultura Sailburuordetza

Zuzendaritza: Kultura Ondarearen Zuzendaritza

Epea: 2017

Helburu Estrategikoa 3:

Artxiboen Euskal Sistema garatzea.

Diru-laguntza ildo edo lerroa 1:

Toki-erakundeei beren artxibo sistema jartzeko edota sendotzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duena.

ARTXIBO PUBLIKOAK 2017

Organoa:

Kultura sailburuordea

Programa:

Programa: 4514 – Ondare Historiko Artistikoa

Azpiprograma: 45143 – Agiritegiak

Helburuak, ekintzak eta adierazleak:

Helburua: 3. Artxiboen euskal sistema garatzea.

Ekintza: 4. Diru-laguntzak toki-entitateei, beren artxibo-sistemak martxan jartzeko eta sendotzeko.

Adierazleak: 1, 2, 3, 4 eta 5.

1. Udal artxibo sistema sortzea edo hobetzea.
2. Dokumentu-funtsak baloratzea.
3. Artxibo-dokumentuak digitalizatzea.
4. Kultur zabalkunderako programak.
5. Artxibo-zerbitzu mankomunatuaren mantentze-lanak.

Aurrekontu-konpromisoak: 4. kapitulua

Guztira 2017 = 290.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

EAEko toki-erakundeak, eta horretan sartzen dira udalak, udalek baino lurralde txikiagoa hartzen duten entitateak eta toki-izaera duten udalaz gaindiko entitateak, betiere, legez eratuta badaude eta dagozkion erregistro eta administrazio-erroldeetan inskribatuta badaude. Kanpo geratzen da lurralde historikoen sektore publikoa.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZEN ILDOAK**

Sailburuordetza: Kultura Sailburuordetza

Zuzendaritza: Kultura Ondarearen Zuzendaritza

Epea: 2017

Helburu Estrategikoa 3:

Artxiboen Euskal Sistema garatzea.

Diru-laguntza ildo edo lerroa 2:

Publikoak ez diren artxiboak antolatu eta digitalizatzeko diru-laguntzak.

ARTXIBO PRIVATUAK 2017

Organoa:

Kultura sailburuordea

Programa:

Programa: 4514 – Ondare Historiko Artistikoa

Azpiprograma: 45143 – Agiritegiak

Helburuak, ekintzak eta adierazleak:

Helburua: 3. Artxiboen euskal sistema garatzea.

Ekintza: 5. Publikoak ez diren artxiboak antolatzeko, zabaltzeko eta digitalizatzeko diru-laguntzak.

Adierazleak: 1, 2 eta 3

1. Artxibo-funtsak antolatzea eta artxibo-tratamendua hobetzea.
2. Digitalizatutako artxibo funtsak Badator/Dokuklik informazio-zerbitzuan integratzea.
3. Artxibo-funtsak digitalizatzea.

Aurrekontu-konpromisoak: 4. kapitulua

Guztira 2017 = 170.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Euskal Herriko Ondare Dokumentala osatzen duten artxibo-dokumentuen, artxibo-funtsen zein dokumentu-bildumen jabe diren pertsona ez publikoak, euren egoitza soziala zein fiskala edozein leku geografikotan badago ere.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZEN ILDOAK**

Sailburuordetza: Kultura Sailburuordetza

Zuzendaritza: Kultura Ondarearen Zuzendaritza

Epea: 2017

Helburu Estrategikoa 4:

Liburutegien Euskal Sistema garatzea.

Diru-laguntza ildo edo lerroa 1:

Irakurketa sustatzeko eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean txertatuta dauden liburutegi publikoen erabilera sustatzeko diru-laguntzak.

IRAKURKETA SUSTATU 2017

Organoa:

Kultura sailburuordea

Programa:

Programa: 4514- Ondare Historiko Artistikoa

Azpiprograma: 45144 – Liburua eta Liburutegiak

Helburuak, ekintzak eta adierazleak:

4. LIBURUTEGIEN EUSKAL SISTEMA GARATZEA.

3. Irakurzaletasuna eta liburutegi publikoen erabilera sustatzeko diru-laguntzak.

3.1 Profesionalen prestakuntza espezifikoa. (1)

3.2 Irakurketa-jarduera osagarriak. (142)

3.3 Liburuaren inguruko erakusketa bibliografikoak, solasaldiak eta abar antolatzea. (15)

3.4 Literatura-lehiaketak antolatzea. (15)

3.5. Herritarrak liburuetara eta liburutegietara hurbiltzeko kanpainak. (2)

Aurrekontu-konpromisoak: 4. kapitulua

Guztira 2016= 258.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Liburutegi publikoen titular diren EAEko udalak, eta, bestetik, EAEko udal liburutegi publikoen arloko eskumenak dituzten edo arlo horretako egitekoak esleituta dituzten toki-erakundeak.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZEN ILDOAK**

Sailburuordetza: Kultura Sailburuordetza

Zuzendaritza: Kultura Ondarea

Epea: 2017

Helburu Estrategikoa 4:

Liburutegien Euskal Sistema garatzea.

Diru-laguntza ildo edo lerroa 2:Liburutegi publikoetako liburu-funtsak berritzeko edota handitzeko diru-laguntza.
LIBURUTEGIKO LIBURU-FUNTSAK 2017**Organoa:**

Kultura sailburuordea

Programa:Programa: 4514 – Ondare Historiko Artistikoa
Azpiprograma: 45144 – Liburua eta Liburutegiak**Helburuak, ekintzak eta adierazleak:**

1. LIBURUTEGI PUBLIKOETAKO LIBURU-FUNTSAK BERRITZEKO EDOTA HANDITZEKO DIRU-LAGUNTZAK.
 - 1.1. Liburutegi sortu berrietarako dokumentu sortak eskuratzea. (1)
 - 1.2. Lehendik dauden liburutegietako funtsak berritzeko izenburuak eskuratzea. (180)

Aurrekontu-konpromisoak: 7. kapitulua

Guztira 2017: 670.000,00 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Liburutegi publikoen titular diren EAeko udalak, eta, bestetik, EAeko udal liburutegi publikoen arloko eskumenak dituzten edo arlo horretarako egitekoak esleituta dituzten toki-erakundeak.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZEN ILDOAK**

Sailburuordetza: Kultura Sailburuordetza

Zuzendaritza: Kultura Ondarearen Zuzendaritza

Epea: 2017

Helburu Estrategikoa 4:

Liburutegien Euskal Sistema garatzea.

Diru-laguntza ildo 3:

Liburutegi publikoetan teknologia berriak ezartzeko edo/eta garatzeko diru-laguntzak.

LIBURUTEGIETAN TEKNOLOGIA BERRIAK 2017

Organoa:

Kultura sailburuordea

Programa:

Programa: 4514 – Ondare Historiko Artistikoa

Azpiprograma: 45144 – Liburua eta Liburutegiak

Helburuak, ekintzak eta adierazleak:

4. LIBURUTEGIEN EUSKAL SISTEMA GARATZEA

4. Liburutegi publikoetan teknologia berriak ezartzeko edo garatzeko diru-laguntzak.

1. Ordenagailuak berritzea (254)

2. Eskanerrak, irakurgailu optikoak eta abar berritzea (460)

Aurrekontu-konpromisoak: 7. kapitulua

Guztira 2016 = 350.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Liburutegi publikoen titular diren EAeko udalak, eta, bestetik, EAeko udal liburutegi publikoen arloko eskumenak dituzten edo arlo horretarako egitekoak esleituta dituzten toki-erakundeak.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZEN ILDOAK**

Sailburuordetza: Kultura Sailburuordetza

Zuzendaritza: Kultura Sustatzeko Zuzendaritza

Epea: 2017-2018

Helburu Estrategikoa 1:

Euskal sorkuntza sarea sendotzea eta kultura-industriak bultzatzea

Diru-laguntza ildo 1:

Musika-jarduera profesionaletarako diru-laguntzak.

MUSIKA (17/18)

Organoa:

Kultura sailburuordea

Programa:

Programa: 4513- Kulturaren sustapena

Azpiprograma: 45131 – Musika

Helburuak, ekintzak eta adierazleak:

6. KULTURA-INDUSTRIAK BULTZATZEA

1. Kultura ekoizpena dinamizatzea.

1. Lagundutako musika-proiektu kopurua

Aurrekontu-konpromisoak: 4. kapitulua

Kapitulua	2017	2018	Guztira/Kap.
4	250.000	250.000	500.000
Guztira/Urt.	250.000	250.500	500.000

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Sozietate-egoitza EAEn duten edo EAEn erroldatuta dauden pertsona fisikoak edo juridiko pribatuak, edo bestela, aurkezten den proiektuaren helburua Euskal Herriko artistak edo musikarien lanak ekoiztea edo zabaltzea izatea.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZEN ILDOAK**

Sailburuordetza: Kultura Sailburuordetza

Zuzendaritza: Kultura Sustatzeko Zuzendaritza

Epea: 2017-2018

Helburu Estrategikoa 1:

Euskal sorkuntza sarea sendotzea eta kultura-industriak bultzatzea

Diru-laguntza ildo 2:

Dantza sustatzeko diru-laguntzak.

DANTZA (17/18)

Organoa:

Kultura sailburuordea

Programa:

Programa: 4513- Kulturaren sustapena

Azpiprograma: 45132 – Dantza

Helburuak, ekintzak eta adierazleak:

6. KULTURA INDUSTRIAK BULTZATZEA

1. Kultura-ekoizpena dinamizatzea

2. Lagundutako dantza-proiektu kopurua urtean

Aurrekontu-konpromisoak: 4. kapitulua

Kapitulua	2017	2018	Guztira/Kap.
4	225.000	225.000	450.000
Guztira/Urt.	225.000	225.000	450.000

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Sozietate-egoitza EAEn duten edo EAEn erroldatuta dauden pertsona fisikoak edo juridiko pribatuak.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZEN ILDOAK**

Sailburuordetza: Kultura Sailburuordetza

Zuzendaritza: Kultura Sustatzeko Zuzendaritza

Epea: 2017

Helburu Estrategikoa 1:

Euskal sorkuntza-sarea sendotzea eta kultura-industriak bultzatzea

Diru-laguntza ildo 3:

SAREA Dantza Zirkuituan parte hartzen duten dantza-konpainientzako diru-laguntzak.

DANTZA ZIRKUITUA 2017

Organoa:

Kultura sailburuordea

Programa:

Programa: 4513- Kulturaren sustapena

Azpiprograma: 45132 – Dantza

Helburuak, ekintzak eta adierazleak:

3. AUKERA BERDINTASUNA SUSTATZEA

3. Kultura-ohiturak sustatzea

5. Lagundutako dantza-emanaldi kopurua urtean

Aurrekontu-konpromisoak: 4. kapitulua

Kapitulua	2017	Guztira/Kap.
4	140.000	140.000
Guztira/Urt.	140.000	140.000

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen Dantza Zirkuituan sartutako SAREako antzokietako programazioetan ikuskizunen bat ematen duten dantza-konpainiak.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZEN ILDOAK**

Sailburuordetza: Kultura Sailburuordetza

Zuzendaritza: Kultura Sustatzeko Zuzendaritza

Epea: 2017-2020

Helburu Estrategikoa 1:

Euskal sorkuntza sarea sendotzea eta kultura industriak bultzatzea

Diru-laguntza ildo 4:Ikus-entzunezkoen arloan produkzioaren aldeko diru-laguntzak.
IKUSENTZUNEZKOA (17/20)**Organoa:**

Kultura sailburuordea

Programa:

Programa: 4513- Kulturaren sustapena

Azpiprograma: 45133 – Ikus-entzunezkoa

Helburuak, ekintzak eta adierazleak:

6. KULTURA INDUSTRIAK BULTZATZEA

1. Kultura-ekoizpena dinamizatzea

3. Lagundutako ikus-entzunezko proiektu kopurua urtean

Aurrekontu-konpromisoak: 7. kapitulua

Kapitulua	2017	2018	2019	2020	Guztira/Kap.
7	500.000	1.025.000	315.000	420.000	2.260.000
Guztira/Urt.	500.000	1.025.000	315.000	420.000	2.260.000

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Zinematografia eta ikus-entzunezko enpresak.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZEN ILDOAK**

Sailburuordetza: Kultura Sailburuordetza

Zuzendaritza: Kultura Sustatzeko Zuzendaritza

Epea: 2017

Helburu Estrategikoa 1:

Euskal sorkuntza sarea sendotzea eta kultura-industriak bultzatzea

Diru-laguntza ildo 5:

Antzerkiko profesionalak prestatzeko programa eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak.

ANTZERKI PROFESIOALEN PRESTAKUNTZA 2017

Organoa:

Kultura sailburuordea

Programa:

Programa: 4513- Kulturaren sustapena

Azpiprograma: 45134 – Antzerkia

Helburuak, ekintzak eta adierazleak:

4. EUSKAL SORKUNTZA SAREA SENDOTZEA

3. Arte eszeniko arloko prestakuntzarako laguntza espezifikoak.

1. Antzerkirako prestakuntza integrala helburu duten ikastaroetan izandako ikasle-kopurua urtean.

2. Antzerkirako prestakuntza berezitua helburu duten ikastaroetan izandako ikasle-kopurua.

Aurrekontu-konpromisoak: 4. kapitulua

Kapitulua	2017	Guztira/Kap.
4	88.000	88.000
Guztira/Urt.	88.000	88.000

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Bizilekua edo egoitza soziala EAEn duten pertsona fisikoak edo juridiko pribatuak, eta arte eszenikoen sektorean prestakuntza-proiektuak aurkezten dituztenak.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZEN ILDOAK**

Sailburuordetza: Kultura Sailburuordetza

Zuzendaritza: Kultura Sustatzeko Zuzendaritza

Epea: 2017

Helburu Estrategikoa 1:

Euskal sorkuntza sarea sendotzea eta kultura-industriak bultzatzea

Diru-laguntza ildo 6:

EAEko antzokietako egoitza-proiektuetarako diru-laguntzak.

ANTZOKIETAN EGOITZA PROIEKTUAK 2017

Organoa:

Kultura sailburuordea

Programa:

Programa: 4513- Kulturaren sustapena

Azpiprograma: 45134 – Antzerkia

Helburuak, ekintzak eta adierazleak:

6. KULTURA INDUSTRIAK BULTZATZEA

1. Kultura ekoizpena dinamizatzea

7. Antzerki-konpainien egoitza programa-kopurua urtean, antzoki publikoetan

Aurrekontu-konpromisoak: 4. kapitulua

Kapitulua	2017	Guztira/Kap.
4	80.000	80.000
Guztira/Urt.	80.000	80.000

Zein sektoreri dago zuzenduta:

EAEko udalak edo haien mendeko erakundeak, ekipamendu eszeniko baten titular badira.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZEN ILDOAK**

Sailburuordetza: Kultura Sailburuordetza

Zuzendaritza: Kultura Sustatzeko Zuzendaritza

Epea: 2017

Helburu Estrategikoa 1:

Euskal sorkuntza sarea sendotzea eta kultura-industriak bultzatzea

Diru-laguntza ildo 7:

Aire zabaleko gune publikoetan euskal konpainiek egiten dituzten arte eszenikoen ikuskizunen programetarako (antzerkia, dantza eta zirkoa) diru-laguntzak (Kale Antzerkia Bultzatuz programa).

KALE ANTZERKIA BULTZATUZ 2017

Organoa:

Kultura sailburuordea

Programa:

Programa: 4513- Kulturaren sustapena

Azpiprograma: 45134 – Antzerkia

Helburuak, ekintzak eta adierazleak:

3. AUKERA BERDINTASUNA SUSTATZEA

3. Kultura-ohiturak sustatzea

4. Kaleko ikuskizun eszenikoetako kontratu kopurua urtean

Aurrekontu-konpromisoak: 4. kapitulua

Kapitulua	2017	Guztira/Kap.
4	100.000	100.000
Guztira/Urt.	100.000	100.000

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Udalak edo haien udal-erakunde autonomoak, tokiko enpresa-entitate publikoak eta tokiko merkataritza-sozietateak, sozietatearen kapitala titulartasun publikokoa bada.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZEN ILDOAK**

Sailburuordetza: Kultura Sailburuordetza

Zuzendaritza: Kultura Sustatzeko Zuzendaritza

Epea: 2017-2018

Helburu Estrategikoa 1:

Euskal sorkuntza sarea sendotzea eta kultura-industriak bultzatzea

Diru-laguntza ildo 8:

Antzerki-produkziorako diru-laguntzak.

